

KULTUR SHAREA

ZABALDU KULTURAREN LEIHO GUZTIAK ETA EUSKARAZ SHARETU

HASIERA



GAIAK ▾

ANTZERKIAARTEABERTSOLARITZADANTZAERAKUSKETAEUSKARA
IRITZI ARTIKULUAKJAIALDIAKJARDUNALDIAKLITERATURAMUSIKAZINEMA
BESTELAKOAK

ATALAK ▾

KONTALARIAKBEREZIAKBULETINAMULTIMEDIAGURE BAZTERRETATIK
KS ARETOA

HERRALDEKA ▾

ARABANAFARROA BEHEREABIZKAIAGIPUZKOALAPURDINAFARROA
ZUBEROAEUSKALHERRIA

ZOZKETAK ▾

DENDAOSTEKOAKAMAK

HOME / GAIAK / LITERATURA / ALAINE AGIRRE ETA LEIRE VARGAS IDAZLEEK IRUN HIRIA LITERATURA SARIA IRABAZI DUTE



(argazkia: U.G. Kultur Sharea)

LITERATURA NABARMENDUAK PORTADA

ALAINE AGIRRE ETA LEIRE VARGAS IDAZLEEK IRUN HIRIA LITERATURA SARIA IRABAZI DUTE

By KulturSharea / 2021-09-13

Karena euskarazko eleberriarekin eraman du saria Agirrek. Vargasek, berriz, Dena ametsa den irudipena euskarazko olerkiarekin.

Joan den larunbatean eman zitzuten ezagutzen aurtengo Irun Hiria Kutxa Literatura Sarien irabazoleak: Alaine Agirre Garmendia idazle bermeotarrak *Karena euskarazko eleberriarekin* eraman du saria eta Leire Vargas Nieto durangarrak *Dena ametsa den irudipena euskarazko olerkiarekin*.

Gaztelaniazko eleberrigintzan, berriz, David Monthielek jaso du saria, *Historia provincial de la infamia* eleberriarekin eta olerkigintzan Pablo Luque Pinillak Greenwich lanarekin.

Eleberrigintzari dagokionez, 25.000 euro jaso dituzte irabazleek eta poesiagintzan 15.000.

44. edizio honetan, orotara 1.675 lan aurkeztu dira, antolatzaileen esanetan, “inoizko parte hartzerik handiena”; 2019ko edizioarekin alderatuta, eta kopuru osoari dagokionez, 1.103 lan gehiago izan dira, aurreko edizioan baino %193 gehiago.

Eleberri modalitatean, gaztelaniaz, gehikuntza %230koa izan da, 677 lan gehiago, eta euskaraz %25koa, 5 lan gehiago. Olerkian, gaztelaniaz, gehikuntza %169koa izan da, 404 lan gehiago, eta euskaraz %90koa, 17 lan gehiago.

Lanen jatorriari dagokionez, Madrilgo autonomia erkidegoak aurkeztu du kopuru handiena, guztien % 14, eta jarraian, oso gertutik, EAEko eta Andaluziako lanak daude, %9rekin bakoitza.

Sari-emate ekitaldian Antonio Colinas egin nahi izan diote omenaldia “bere literatura ibilbideagatik eta azken 50 urteetan epaimahai gisa egindako lanagatik”. 1970 urtean Irun Hiria Poesiako Saria jaso zuen Colinasek, Sari hauen lehen edizioan, eta harrezkero, Kutxa Irun Hiria Literatur Sariei lotuta egon da.

Antolakuntzak, halaber, aipamen berezia egin nahi izan die epaimahakideei “kalitate eta ospeagatik”. “Sarien historian izan dugun epaimahairik onenetariko bat izan da, zalantzarak gabe”:

Euskarazko eleberria: Felipe Juaristi Galdos, Jon Martín Etxebarrieta, Joxe Mari Iturralde Uria, Arantza Urretabizkaia Bejarano eta Jon Kortazar Uriarte. Euskarazko olerkia: Lourdes Otaegi Imaz, Iñaki Aldekoa Beitia eta Itxaro Borda Xarriton. Gaztelaniazko eleberria: Fernando Marias Amondo, Luisa Etxenike Urbistondo, Manuel Vilas, Patricia Esteban Erles eta Jon Bilbao Lopategui. Gaztelaniazko olerkia: Manuel Rico Rego, Antonio Colinas eta Raquel Lanseros.

Zabaldu:



IZABAN EMANGO DIOTE HASIERA
NAFARROAKO BERTSOLARI
TXAPELKETARI, URRIAREN 2AN



EUSKAL HERRI OSOAN EHUN
EMANALDI BAINO GEHIAGO ESKAINI
OSTEAN, BILBORA ITZULIKO DA ‘EZ
DOK HIRU’ ANTZEZLANA

BILATU

Bilatu ...

BILATU



Lege oharra

[✉ albisteak@kultursharea.eus](mailto:albisteak@kultursharea.eus)



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Salburuordetza) diruz lagundua

KULTUR SHAREA

ZABALDU KULTURAREN LEIHO GUZTIAK ETA EUSKARAZ SHARETU

